



AITORTZA EKITALDIA

Azaroaren 10

Arrasateko Bizikidetza batzordea

Herri agintari eta ordezkariok, senide eta lagunok, arratsalde on guztioi!

Arrasateko Udalak ekitaldi hau deitu du gaur Agurtzane Arregi Letamendi aitortzeko. Bereziki eskertu nahi ditugu gaur gurekin zaudeten Agurtzaneren senideak. Jakin dakigu zuentzat ekitaldi hau prestatzea ez dela erraza izan. Jabetzen gara oraindik oso bizirik dagoen mina ukitzen ari garela; horregatik, mila esker bihotzez gaur hemen egoteagatik.

Gaurko ekitaldiak zuentzat izan nahi du orain arte izan ez duzuen aitortza egiteko, eta horren maitatua zenuten Agurtzaneren memoria berreskuratzen laguntzeko.

Gaur, Azaroaren 10 izanda memoriaren eguna, baliatu nahi izan dugu egun hau Agurtzane Arregi motibazio politikoko indarkeriaren biktima bezala aitortzeko.

Ekitaldi honekin, elkarlanetik eta akordiotik landu beharreko memoriaren eta aitortzaren bideari jarraipena eman nahi izan diogu. 2016an abiatu genuen memoria eta elkarbizitzaren aldeko apustua, orduan bezala gaurkoan ere, udalean ordezkaritza dugun alderdi politiko guztiok bat egiten dugu horretan. Jabetzen gara gure herritarrek pairatu dutenaren memoria berreskuratzea eta aitortzea ezinbesteko urratsa dela gure herriko bizikidetza berreraikitzeko.

Gure herrian pairatutako indarkeriak Giza Eskubideen urraketa larriak ekarri izanaz gain, oraindik oso bizirik dirauten zauriak eragin ditu gure herritarrengan. Biktima guztiei dagozkie egia, justizia, erreparazioa eta ez errepikatzeko bermea. Ekitaldi hau herriari irekia egin nahi izan dugu, pausu honen bitartez bizikidetza berreraikitzeko bideari elkarrekin ekin diezaiogun.



Agurtzane Arregi Letamendia Arrasatekoa zen izatez, baina Urruñan bizi zen eta arropa-denda batean egiten zuen lan. 38 urte zituen, eta 13, 11 eta 9 urteko bi alabaren eta seme baten ama zen. Hain zuzen, zuen gurasoek, Juan Jose eta Agurtzanek, jatetxe bat zeukaten Donibane Lohizunen, eta hainbat atentatu egin zizkieten bertan. Lapurdiko herri horretan egin zuen senar-emazteen aurkako atentatua Triple A-ko (Alianza Apostólica Anticomunista) “Batallón Adolf Hitler” taldeak, 1978ko uztailaren 2an. Atentatu horretan Agurtzane Arregi erail zuten (17 tirok jo zuten), eta Juan Jose Etxabe zauritu. Egun hartan, 10 minutu inguru zeramatzan Juan Jose Etxabek Juri-Berri kalean, Peugeot 604 autoaren barruan irratia entzuten, emazteak lana noiz bukatu zain. Triple A-ko kideek, baina, ez zuten tirorik bota biak auto barruan egon zirenera arte: biak ziren jomuga, eta biei egin zieten tiro.

44 urte igaro dira erailketa honetatik eta oraingoz familiak ez du ez egirik, ez Estatuaren aitortza ofizialik, ez indemnizaziorik, ez justiziarik izan. Tamalez gaur egun oraindik Estaturen ordezkariak izandakoak, indarkeria ekintzak justifikatzen diraute.

Egia eta justiziaren bidea itxita aurkitu dituzue. Atentatuaren egiletza eta arduen inguruko epaiketa ezta diligentziarik ez dira irekiak izan. Gertatutakoa argitzeko “Ley de Secretos Oficiales” legeak babesten dituen dokumentuak eskuratzea ezinbestekoa litzateke. Horren arabera, 2028 urtean 50 urte beteko dira atentatua izan zenetik printzipioz artxiboak irekitzeko epe legala gaindituko da, baina orain eztabaidatzen ari den Lege berriak zer esaten duen ikusi beharko da.

Joan den urtean, Agurtzaneren senideok 12//2016 Legearen baitan sorturiko Balorazio Komiziotik pasatzeko aukera izan zenuten eta 44 urte geroago, familiak, Agurtzane Arregi biktima bezala onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren ebazpena jaso duzue.

Arrasateko Udalak ere uste zintzoa du bizikidetzaren eraikuntza memorian eta egian oinarritu behar dela, bai giza eskubideen urraketek dagokienez, bai urte askoan jasandako sufrimendu anitzek dagokienez. Helburu horrekin 2018. urtean txosten bat aurkeztu genuen, Argituz elkarteak egindakoa; bertan jaso nahi izan genituen motibazio politikoko indarkeriak eragindako giza eskubideen urraketek biktima guztiak. Udalaren eskumenetan dagoena



kontuan harturik, gertatutakoa ikusarazi nahi izan genuen, eta egiaren bidea jorratzeari ekin nahi izan genion.

Gaur, Arrasateko Udalak beste urrats bat eman nahi du egia berreskuratzeko bide honetan, eta aitortu nahi du Agurtzane Arregi Letamendi motibazio politikoko indarkeriak eragindako urraketan biktima dela. Eta, hortaz, biktima guztiei dagozkien eskubideak: gertatutakoaren egia guztia izatea, justizia, eta erakundeen aitortza dagozkizuela berretsi nahi dugu. Aipatutako txostenak jasotzen duen bezala, egilezagatik edo biktima zein den diskriminatu gabe, jasandako Giza Eskubideen urraketa larriari erreparatu eta pertsonaren duintasuna zentroan jarri nahi du.

Bidegabea izan da Estatuaren eta eskuin muturreko taldeen indarkeria, bidegabea urraketa hauek aitortzeko borondate eza, familien aitortza eta memoria eskubideak urratzen baitizkie. Giza eskubideen urraketa guztiak bidegabeak izan diren bezala. Bidegabea, denboran luzatu delako eta luzatzen ari delako. Bidegabea, batez ere, eragindako giza kalte konponezina.

Guk ere, eta gehien bat zuei entzunda, eta udal ordezkari moduan, konpromisoa adierazi nahi dizuegu gure eskumenen baitan egin dezakegun guztia egiteko. Balioan jarri nahi dugu familiak orain arte egindako bidea biktima izaeraren aitortza ofiziala jasotzeko, egia ezagutu zein justizia eskatzeko.

44 urte luze pasatu dira. Jada berandu bada ere, espero dugu beranduegi ez izatea aitortza hau jasotzeko. Guri dagokigu egin ez dena aitortzea. Gaurko ekitaldi honekin aitortu nahi dugu 44 urteko udal aitortza instituzionalaren hutsunea.

Arrasateko Udaleko indar politiko guztien arteko elkarlanak eta adostasunak egin dute posible ekitaldia hau. Gaur, hemen, gure herriko biktima guztiak erreparatzeko, herriko bizikidetzak bultzatzeko eta berriro ere halakorik errepikatu ez dadin, gure konpromisoa berresten dugu gure esku dagoen guztia egiteko. Gaur, 44 urte igaro eta gero, Arrasateko Udalak aitortza ekitaldi zintzo honen bitartez, espero dugu biktimen erreparazioari laguntzea, memoria kritikoa zein giza eskubideen ikuspegia zabaltzea, eta gure herriko bizikidetzari ekarpena egitea. Hori dugu gaur, beste behin, jomuga. Eta jarraituko du izaten.



Mila esker.

Ekitaldia bukatzeko, Jon Sarasuak Arrasateko Memoria liburuarentzat espreski egindako epilogoia irakurri nahi dizuegu.

Entzuten duzu goizean  
negar isil bat haizean.

Ezker nahiz eskuin aditu  
bi belarri hartzen ditu.

Odolak ihes zainetik  
lubaki biren gainetik.

Mugagabeen lausoa  
oinazezko itsasoa.

Bandoei egin gabe men  
ote genezake omen?

Omen pairatu dutenei  
gure bular estuei dei.

Hartu nauzunean aintzat  
brintzatu dira harkaitzak.

Egiaren arragoa  
beti da zabalagoa.

Brintzatu bada harkaitza  
hor erneko da zuhaitza.



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ARRASATE  
2022/11/10